

2007ko urriaren 30ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN AKTA. Zk. 7

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK :

- 1.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR
- 3.- MARIA JESUS ARRUABARRENA
- 4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE
- 6.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
- 7.- NAIARA ESNAL HUEGUN

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko udalbatzaren Akta onartu

Urriaren 1eko Akta onartu du aho batez Udalbatzak.

2.-2007 urteko aurrekontuaren zenbait kreditu aldatzeari hasierako onarpena eman

Alkateak adierazi du indarrean dagoen aurrekontuan hurrengo taulan jasotako aldaketak burutzea komeni dela.

Kapitulua	Funtzioa	z/bk.	Partida	Hasierako kreditoa	Aldaketa	Bukaerako kreditoa
1	442	1	Obra eta zerbitzuetarako:sei hilabeteko kontratua	0,00	18691,41	18691,41
			Guztira 1 Kap.		18691,41	18691,41
2	432	2	Arau Subsidiarioen aldaketa/arrazubiko bariantea	26500,00	26686,00	53186,00
			Guztira 2 kap.		26686,00	53186,00
4	321	3	Manko.Zerbitzu Orokorrak/Lan baloraketa	17726,33	4333,22	22059,55
4	442	4	Manko.Zerbitzu Orokorrak/Zabortegiko aportazioa	26507,1	37591,29	64098,39
4	442	5	Arratolako bizilagunei/urbanizatze gastuetako	0	12000,00	12000,00
4	533	6	Ihobe udal sarea	0	300,00	300,00
4	533	7	Urkomeri	8600	1797,10	10397,10
4	533	8	Armendiko errontonda egindako enpresei diru lagun	180000	70000,00	250000,00
4	452	9	Orioko kiroldegia	8000,00	1990,05	9990,05
			Guztira 4 Kap.		128011,66	74545,80
6	451	10	Ikastaroak	4000,00	12311,50	16311,50
6	451	11	Musika eskolarako teklatura	0,00	1223,00	1223,00
6	313	12	Goiz-argi kafe makina	800,00	3463,00	4263,00
6	442	13	Saneamendu lanak	187534,00	80938,00	268472,00
6	441	14	Elkanoko ura		12687,59	12687,59
6	432	15	Elkano auzoan nekazaritza ustialekua argindarra	0,00	7605,20	7605,20
6	432	16	Armendi gaineko drenajea	15000,00	35888,06	50888,06
6	432	17	Santioko espaloia 2. espaloia	260000,00	50767,69	310767,69
6	432	18	Urdaneta auzoan haur parkea	7000,00	1135,30	8135,30
			Guztira 6.Kap		206019,34	680353,34
8	121	19	Pertsonalari kontsumo mailegua	0,00	1500,00	1500,00
			Guztira 8. Kap		1500,00	1500,00
			Aldaketak Guztura/Total Modificaciones	561667,43	380908,41	828276,55

Aldaketa hauek guztira 380.908,41.-eurotako kopurua osatzen dute.

Aldaketa hau gauzatu ahal izateko bada nahiko kreditu erabilgarri, izan ere, 2007ko aurrekontuetako zenbait partidetan aurrikusitakoa baina kopuru txikiagoak erabili baitira edo aurrikusitakoa baina diru-sarrera handiagoak izan baitira beste alde batetik, ondoren atxikitutako taulan egiazta daitekeenez.

	Funtzioa/Funtzion	Partida	Hasierako kreditoa	Erabilia	Kreditu deseuztatua eta sarrera handiagoak
BAJAK KREDITUETAN					
6	442	Nekane inguruan zabor ontziak jartzea	15000,00	4035,42	10964,58
6	441	Iruretaegia auzora ura	15000	0,00	15000,00
6	441	Lokate-Zialtzetako ur sarea	20000	0,00	20000,00
6	432	Aitzpea kalearen txukunketa	12000	0,00	12000,00
6	422	Lardizabal eskola pintatzea	15000	0,00	15000,00

6	451	Perretxikoen liburua	4000	0,00	4000,00
6	452	Igerilekuko Konponketa	15000	7030,80	7969,20
6	533	hilerriko konponketak	15000	0,00	15000,00
		SARRERA HANDIAGOAK			99933,78
	1	Hiri Ondasunak	210000,00		48605,66
	1	Ibilgailuen zerga	120000,00		11282,25
	3	Lurzorua, lurrazpiko okupazio tasa			3001,97
	3	Construc. Arratola: S-II-3-Olaskoegia eremuko abala			12000,00
	3	Const. Ozio: Santioko espaloi obraren abala ejekuta	24000,00		24000,00
	4	Diputazioak: U.F.F.F 2007ko likidazioa	925728,43		104479,55
	4	Diputazioak: Armendiko errontonda: diru laguntza	180000,00		70000,00
	4	Diputazioak: Elkanoko baso berri ustiak.eletrifikatze	0,00		6084,16
	4	Etxabe: Baso berri ustiaketaren jabea, eletrifikatzea	0,00		1521,04
		Guztira			280974,63
					380908,41

Izapidetzari dagokionez, bai hasierako onarpen akordioa bai espedientea jendaurrean egongo dira 15 egunez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritz geroztik, Udal Idazkaritza-bulegoetan, jarraian adierazitako baldintzetan. Alegia:

- a) Erreklamazioa aurkezteko legitimazioa izango dutela 21/2003 Foru Arauak 17. artikuluan aipatutakoek
- b) Erreklamazioak aurkezteko lekua Udaletxeko Erregistroa eta 30/92 legeko 38 artikulua jasotako tokiak izango direla
- d) Erreklamazioak Udal Batzarrari zuzendu behar zaizkiola.

Informazio publiko aldia igaro ondoren, erreklamazio ezean, hasierako onarpen akordioa behin-betikotzat jo eta ondorioz, kreditu-aldaketok behin betiko onartuak izan direla ulertuko da, beste erabaki espresurik hartu beharrik gabe. Eta kreditu-aldaketen laburpena kapituluka Aldizkari Ofizialean argitaratuko da azkenik. Guzti hau Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Arauak – abenduaren 19koak- xedatutakoari jarraituz.

AKORDIOA: Udalbatzak, ahobatez, onartu du 2007 urteko Aurrekontuetako kreditu-aldaketa hauei hasierako onarpena ematea, aipatutako atalak direla eta.

3.- “Armendi-Gain” kooperatibako 24 etxebizitzaren eta hauei atxikitutako 24 garaje zein 24 trastelekuen behin-behineko kalifikazioa Aiako erregimen bereziko Udal etxebizitza tasatu bezala, “1,3” indizearekin.

Alkateak adierazi du “Armendi-Gain S. coop.” kooperatibaren izenean, Ricardo Peña Quintela jaunak eskaria egin zuela 2007ko urriaren 4ean, Armendi-Gain sektoreko “R.3A.2” partzelan sustatutako 24 etxebizitza eta hauei atxikitutako garaje eta trastelekuen behin-behineko kalifikazioa egiteko Aiako Udal Etxebizitza Tasatu bezala.

Eskari honen aurrean, gogoan izan behar litzateke, “ R.3A.2” partzelan 24 etxebizitza, 28 garaje eta 28 trasteleku eraikitze obra lizentzia, udalak 2005ko maiatzaren 11an eman zuela Alkate Dekretuz, Pablo Borde Ondarra arkitektuak 2005eko otsailean izenpetutako proiektuari jarraiki. Proiektu honetan etxebizitza gehienek 90 m2 baino azalera txikiagoa dute, garajeen azalera 30 m2 ingurukoak dira nagusiki eta trastelekuek, berriz, gehienbat 10 m2-tik beherako azalera dituzte.

Bestalde, aintzat izan behar litzateke, Aiako Hirigintza plangintza Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriak - Udalbatzak behin-behingo 2006ko urriaren 10ean onartutakoak- Armendi Gain sektorean “babes publikodun etxebizitza” erabilera aurrikusi duela espreski.

Gainera, ezin ahaz daiteke, Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzak - 2007ko apirilaren 23an onartuak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 30ean argitaratuak- Aiako etxebizitza tasatuen ezaugarriak, kalifikazio prozedura eta mugak arautu dituela.

Honela, orohar, etxebizitzek 90 m2 erabilgarri izango dituzte, atxikitutako garajeek 30 m2 erabilgarri eta trastelekuek 10 m2 erabilgarri. Baina eraikinaren diseinu eta konfigurazioaren ondorioz azalera handiagoak izan ditzakete (4. art).

Horretaz gain, etxebizitza horien prezioa zehaztu beharra dagoela azpimarratu du Alkateak. Eta horretarako, Aiako udal etxebizitza tasatuen prezioa (garaje eta trastelekuak barne hartuta), erregimen berezian “1,7 indizea” dela gehienez (6 art) azaldu du, beti ere, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioarekiko. Muga honen barruan udalak egoki iritzitakoa erabaki dezakenez, alkateak “ 1,3 “ indizea proposatu du.

Azkenik, kalifikazioa egiteko eskuduntza Udalbatzari dagokiola esan du Alkateak eta prozedurari dagokionez, eraikitze lizentziarekin behin-behineko kalifikazioa gauzatuko dela plazaratu du - gehienezko prezioa finkatuz- eta lehen erabilera lizentziarekin batera behin-betiko kalifikazioa (10 art).

BOZKETA: Alde 5 bozka eta 3 abstentzio.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du “Armendi-Gain s.coop” baltzu kooperatibak “Armendi Gain” sektoreko “R.3A.2” partzelan, 22, 23, 24 eta 25 atarietan, sustatutako 24 etxebizitzetara eta beraiei atxikitutako 24 garaje eta 24 trastelekuei behin-behineko kalifikazioa ematea AIAKO ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEZALA “1,3” INDIZEAREKIN, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioarekiko, hau da, gaur egun, etxebizitza erabileradun metro karratu bakoitzaren gehienezko prezioa 1.572,88.-eurotan finkatuz eta garaje zein trasteleku erabileradun metro karratu bakoitzaren prezioa 628,87 .-eurotan ezarriz.

4.- Galderak eta eskaerak

Antxon Gomez zinegotziak, Pagoeta parkeko Patronatuan Aiako udal ordezkari gisa – Alkatearekin batera-, kezka bat jarri du mahai gainean, alegia, Patronatuak ez duela bilerarik egin eta urtean behin elkartzea derrigorrezkoa dela. Horren arira, proposatu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza sailari idatzi bat heleraztea, Udalaren izenean, Pagoetako Patronatuak urtean behin dagokion batzarra egin dezan eskatuz.

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, onartu du ofizio bat Foru Aldundiko Nekazaritza sailari igortzea, Pagoeta Parkeko Patronatuaren batzarra bildu dadin eskatuz eta ondorioz, dagokion deialdia egin dezan.

Bilera 19:30tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2007ko azaroaren 7an.

IGOR ITURAIN IBARGUREN

MARIA JESUS ARRUABARRENA

MAITANE ARRILLAGA ALDALUR

ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

ANTXON GOMEZ LORENTE

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

NAIARA ESNAL HUEGUN

Itziar Azurtza-Sorrondegik, Idazkari-kontuhartzaileak.